



Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea  
Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia

Agencia de Evaluación de la Calidad y  
Acreditación del Sistema Universitario Vasco

# **EHUko IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN ORDAINSARI OSAGARRIAK EBALUATZEKO MEMORIA**

## **II. DEIALDIA**

# AURKIBIDEA


	Or.
1. TESTUINGURUA .....	1
2. EBALUAZIO-PROZESUA.....	1
2.1. PROTOKOLOA EGIN ETA ARGITARATZEA.....	2
2.2. ESKAERAK JASOTZEA .....	2
2.3. EBALUAZIO-BATZORDEAK.....	2
2.4. EBALUAZIOA.....	7
2.5. EBAZPENA .....	17
2.6. BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA .....	18
I. ERANSKINA: ARAUTEGIA .....	19

## 1. TESTUINGURUA

Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeneko Agentziaren (Uniqua) helburua da euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea ebaluatu eta egiaztatzea, Europa eta nazioartea aintzat hartuta betiere. Bere estatutuetan agertzen den bezala, bai eta Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 24ko 3/2004 Legearen 34. artikuluan ere, UNIQUALEn egitekoetako bat da irakaskuntza-, ikerketa- eta kudeaketa-merituak ebaluatzea, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarriak esleitzeko. Beraz, eta urriaren 17ko 209/2006 Dekretuak (EHAA, 2006ko urriak 31), Gizarte Kontseiluaren Deialdiak (EHAA, 2008ko abenduak 18) eta Ordainsari Osagarriak Ebaluatzeneko Protokoloak (EHAA, 2008ko abenduak 17) ezarritakoari jarraituz, EHUko irakasle eta ikertzaileek aurkeztutako eskaerak ebaluatu ditu UNIQUALEK, osagarri horiek esleitze aldera. Tartean diren erakunde guztien helburua da eraginkortasun, efizientzia eta kalitatean oinarritutako sistema ezartzea, EHUko irakasle eta ikertzaileen irakaskuntza-, ikerketa- eta kudeaketa-jarduera sustatu eta bultzatzeko.

## 2. EBALUAZIO-PROZESUA

EHUko irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarriak ebaluatzeneko prozedura 209/2006 Dekretuak ezarritakoak arautzen du, eta honako urrats hauek ditu:



## **2.1. PROTOKOLOA EGIN ETA ARGITARATZEA.**

Kontuan izanik lehen aipatutako lege-araua eta Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko 3/2004 Legearen 80.3.i) artikuluan eta UNIQUALen Estatutuetako (ekainaren 27ko 138/2006 Dekretua) 9.d) artikuluan xedatutakoa, Agentziak Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarriak ebaluatzeko eta esleitzeko prozedura egin eta argitaratu zuen (EHAA, 2008ko abenduak 17).

## **2.2. ESKAERAK JASOTZEA**

Eskaerak aurkezteko epea 2008ko abenduaren 19an hasi zen, eta 2009ko otsailaren 19an bukatu. Deialdiaren epea amaituta, guztira 196 espediente jaso ziren UNIQUALen, EHuren Erregistro Orokorretan utzita.

2009ko otsail eta martxoan, UNIQUALEk honako hauek egiaztatu zituen eskabide guztietan:

- Legez ezarritako aurretiatzko betekizunak betetzen dituztela.
- Deialdian ezarritako baldintza formalak betetzen dituztela.

Ezarritako baldintzak betetzen ez baziren, interesdunari hamar eguneko epea eman zitzaion okerra zuzentzeko, horrela ezarrita baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean, 71. artikuluan.

Eskaerak egiaztatu ahala, sailkatu eta UNIQUALen egoitzan artxibatu ziren, bai aplikazio informatikoan, bai horretarako sortutako datu-basean.

## **2.3. EBALUAZIO-BATZORDEAK**

UNIQUALen estatutuetan (138/2006 Dekretua, ekainaren 27koa) jasotzen denez, UNIQUALEk aholkua eskatuko dio komunitate zientifikoari, eta, horretarako, Ebaluazio Batzordeak osatuko dira jakintza-arloka edo espezialitateka, edo ebaluazio-prozesuaren berezitasunen arabera. Ebaluazio Batzordeko kideak bi urterako izendatuko dira, eta ezingo dira berriz hautatu kargua uzten dutenetik bi urte igaro arte; hortaz, ordainsari osagarrien II. Deialdi honetan I. Deialdiko (EHAA, 2007ko irailak 24) kide berberak izan ditu Ebaluazio Batzordeak.

**2.1. taula.** Medikuntza- eta Osasun-zientzien Batzordeko kideak.

<b>MEDIKUNTZA- ETA OSASUN-ZIENTZIEN BATZORDEA</b>			
<b>Ebaluatzailea</b>	<b>Kategoria</b>	<b>Unibertsitatea</b>	<b>Jakintza-arloa</b>
Joan Rodés Teixidor	Unibertsitateko katedraduna	Bartzelonako Unibertsitatea	Barne-medikuntza
Ciriaco Aguirre Errasti	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Barne-medikuntza
Fernando Escanero Marcén	Unibertsitateko katedraduna	Zaragozako Unibertsitatea	Fisiologia
Aintzane Asumendi Mallea	Unibertsitateko titularra	EHU	Biologia Zelularra
Iciar Astiasaran Anchia	Unibertsitateko katedraduna	Nafarroako Unibertsitatea	Elikadura eta Bromatologia
Manuel Toledano Pérez	Unibertsitateko titularra	Granadako Unibertsitatea	Estomatologia
Joaquín Losada Rodríguez	Unibertsitateko titularra	EHU	Kirurgia

**2.2. taula.** Ezagutza Teknikoen Batzordeko kideak.

<b>EZAGUTZA TEKNIKOEN BATZORDEA</b>			
<b>Ebaluatzailea</b>	<b>Kategoria</b>	<b>Unibertsitatea</b>	<b>Jakintza-arloa</b>
Juan Andrés Legarreta Fernández	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Ingeniaritza Kimikoa
Inmaculada Ortiz Uribe	Unibertsitateko katedraduna	Kantabriako Unibertsitatea	Ingeniaritza Kimikoa
Fernando Viadero Rueda	Unibertsitateko katedraduna	Kantabriako Unibertsitatea	Ingeniaritza Mekanikoa
José María Angulo Usategui	Unibertsitateko katedraduna	Deustuko Unibertsitatea	Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia
Luis Gavete Corvinos	Unibertsitateko katedraduna	Madrileko Unibertsitate Politeknikoa	Matematika Aplikatua
Juan Luis Ordiales Basterretxea	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Seinalearen Teoria eta Komunikazioak
Joseba Andoni Zubia Zaballa	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Seinalearen Teoria eta Komunikazioak
<b>EZAGUTZA TEKNIKOEN BATZORDEKO AHOLKULARIAK</b>			
Alfonso García Santos	Unibertsitateko katedraduna	Madrileko Unibertsitate Politeknikoa	Arkitektura Eraikuntzak
Ricardo Vijande Díaz	Unibertsitateko katedraduna	Oviedoko Unibertsitatea	Ingeniaritza Mekanikoa

## 2.3. taula Giza Zientzien Batzordeko kideak.

<b>GIZA ZIENTZIEN BATZORDEA</b>			
<b>Ebaluatzailea</b>	<b>Kategoria</b>	<b>Unibertsitatea</b>	<b>Jakintza-arloa</b>
Pedro Carasa Soto	Unibertsitateko katedraduna	Valladolideko Unibertsitatea	Historia Garaikidea
José Ramón Díaz de Durana Ortiz de Urbina	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Erdi Aroko Historia
Felipe Criado Boado	Ikerketa-irakaslea	Ikaskuntza Galegoen Padre Sarmiento Institutua (CSIC)	Arkeologia
Andoni Ibarra Unzueta	Unibertsitateko titularra	EHU	Logika eta Zientzia
María Teresa Echenique Elizondo	Unibertsitateko katedraduna	Valentziako Unibertsitatea	Gaztelania
Joseba Andoni Lakarra Andrinua	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Euskal Filologia
Teresa Escohotado Ibor	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Margolaritza eta Zaharberritzea
<b>GIZA ZIENTZIEN BATZORDEKO AHOLKULARIAK</b>			
José María Elexpuru Soloaga	Unibertsitateko titularra	EHU	Marrasketa
Vicente Rodríguez Rodríguez	Ikerketa-irakaslea	Ekonomia eta Geografia Institutua (CSIC)	Giza Geografia

**2.4. taula.** Zientzia Esperimentalen Batzordeko kideak.

<b>ZIENTZIA ESPERIMENTALEN BATZORDEA</b>			
<b>Ebaluatzailea</b>	<b>Kategoria</b>	<b>Unibertsitatea</b>	<b>Jakintza-arloa</b>
Pilar Álvarez Pellitero	Ikerketa-irakaslea	Torre de la Sal Akuikultura Institutua (CSIC)	Baliabide naturalak
Rafael Bilbao Duñabeitia	Unibertsitateko katedraduna	Zaragozako Unibertsitatea	Ingeniaritza Kimikoa
Fernando Cossío Mora	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Kimika Organikoa
Xavier Orue- Etxebarria Urkitza	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Paleontologia
Gotzon Madariaga Menéndez	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Materia Kondentsatuaren Fisika
Miguel Ángel Herrero García	Unibertsitateko katedraduna	Madriko Unibertsitate Konplutensea	Matematika Aplikatua
Pedro Sánchez Lazo	Unibertsitateko katedraduna	Oviedoko Unibertsitatea	Biokimika eta Biologia Molekularra

## 2.5. taula. Gizarte- eta Lege-Zientzien Batzordeko kideak.

<b>GIZARTE- ETA LEGE-ZIENTZIEN BATZORDEA</b>			
<b>Ebaluatzailea</b>	<b>Kategoria</b>	<b>Unibertsitatea</b>	<b>Jakintza-arloa</b>
Luis Miguel Villar Angulo	Unibertsitateko katedraduna	Sevillako Unibertsitatea	Didaktika eta Eskola-antolakuntza
Pauli Dávila Balsera	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Hezkuntzaren Teoria eta Historia
José Luis de la Cuesta Arzamendi	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Zigor Zuzenbidea
Francisco Labrador Encinas	Unibertsitateko katedraduna	Madriko Unibertsitate Konplutensea	Pertsonalitatea, Ebaluazioa eta Tratamendu Patologikoak
Darío Páez Rovira	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Gizarte-psikologia
Juan Ignacio Ruiz Peris	Unibertsitateko katedraduna	Valentziako Unibertsitatea	Merkataritza-zuzenbidea
Francisco Javier Tejedor Tejedor	Unibertsitateko katedraduna	Salamanca Unibertsitatea	Ikerketa- eta Diagnostiko-metodoak Hezkuntzan
<b>GIZARTE- ETA LEGE-ZIENTZIEN BATZORDEKO AHOLKULARIAK</b>			
Silvia Barona Villar	Unibertsitateko katedraduna	Valentziako Unibertsitatea	Zuzenbide Prozesala
Juan Manuel Escudero Muñoz	Unibertsitateko katedraduna	Murtziako Unibertsitatea	Didaktika eta Eskola-antolakuntza



**2.6. taula.** Gizarte- eta Ekonomia-Zientzien Batzordeko kideak.

<b>GIZARTE- ETA EKONOMIA-ZIENTZIEN BATZORDEA</b>			
<b>Ebaluatzailea</b>	<b>Kategoria</b>	<b>Unibertsitatea</b>	<b>Jakintza-arloa</b>
Antonio Aznar Grasa	Unibertsitateko katedraduna	Zaragozako Unibertsitatea	Ekonomia Analisiaren Oinarriak
José Ignacio Armentia Vizuete	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Kazetaritza
Ander Gurrutxaga Abad	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Soziologia
José Luís Narvaiza Solís	Unibertsitateko katedraduna	Deustuko Unibertsitatea	Finantzak
Stefan Sperlich	Unibertsitateko katedraduna	Georg August Universität (Göttingen)	Estatistika eta Ekonometria
Javier Suárez Pandiello	Unibertsitateko katedraduna	Oviedoko Unibertsitatea	Ekonomia Aplikatua
María Jesús Yagüe Guillén	Unibertsitateko katedraduna	Madriko Unibertsitate Autonomoa	Merkaturatzea eta Merkatuen Ikerkuntza

**2.4. EBALUAZIOA**

Eskabideak batzordeka banatu ziren, eskatzaile bakoitzak zehaztutako jakintza-arloaren arabera. Batzuetan, zehaztutako arloa ez zetozen bat alegatutako merezimenduekin, eta, orduan, eskatzaileari galdetu zitzaion zein arlotan aurkeztu nahi zuen bere eskaera.

Binaka ebaluatu ziren, baina banan-banan eta bereiz. UNIQUALEko langileek, ebaluazio-aldian, irakasle eta ikertzaileek adierazi eta justifikatutako merituak argitzeko beharrezko zen informazio guztia bidali zioten ebaluatzaileei.

Eskaeren lehen ebaluazioa egin ondoren, ebaluazio-batzorde bakoitzak bilera egiteko eguna eta ordua zehaztu zen, 2009ko apiril, maiatz eta ekainean. Bileraren ondorioz txosten bakarra eta adostua egin zen ebaluatu beharreko eskabide bakoitzerako.

EHUko irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarriak lortzeko II. Deialdian, 97 espediente ebaluatu ziren A eta B mailetan, eta 80 lagunek C tarte eskatu zuten; guztira, 177 irakasle. Eskatzaile batek epe kanpo aurkeztu zuen eskaera, eta, horrez gain, 18 lagunen eskaera atzera bota zen, UNIQUALEk egiaztatu baitzuen interesdunek ebaluazio positiboa lortu zutela aurreko deialdian, eta, hortaz, eskaerok ezin ziren izapidetzeko onartu, II. Deialdiko Bigarren Oinarriko 3. atalaren aurkakoa baita hori.

**2.7. taula-** II. Deialdian lortutako emaitzak.


LORTUTAKO TARTEAK	Eskatzaile kop.	(%)
A2	3	1,69
A1	4	2,26
B3	7	3,95
B2	7	3,95
B1, C2, C1	24	13,56
B1, C1	21	11,86
C2	27	15,25
C1	63	35,59
TARTERIK EZ	21	11,86

**EMAITZAK CAMPUS BAKOITZEAN****Bizkaiko Campusa**

Bizkaiko Campusean 103 eskatzaile aurkeztu ziren. 2.8. taulan, tarte bakoitzean lortutako emaitzak jasotzen dira.

**2.8. taula.** Bizkaiko Campusean tarte bakoitza zenbat eskatzailek lortu zuten.

TARTEAK	ESKATZAILE KOP.
A2	2
A1	2
B3	5
B2	6
B1 C1	16
B1 C1 C2	16
C2	15
C1	32
TARTERIK EZ	9




**2.1. irudia.** Bizkaiko Campusean lortutako mailen banaketa.

### Gipuzkoako Campusa

Gipuzkoako Campusean 49 eskatzaile aurkeztu ziren. 2,9. taulan, tarte bakoitzean lortutako emaitzak jasotzen dira.

**2.9. taula.** Gipuzkoako Campusean tarte bakoitza zenbat eskatzailek lortu zuten.

TARTEAK	ESKATZAILE KOP.
A2	0
A1	0
B3	1
B2	1
B1 C1	5
B1 C1 C2	4
C2	9
C1	24
TARTERIK EZ	5




2.2. irudia. Gipuzkoako Campusean lortutako mailen banaketa.

### Arabako Campusa

Arabako Campusean 25 eskatzaile aurkeztu ziren. 2.10. taulan, tarte bakoitzean lortutako emaitzak jasotzen dira.

2.10. taula. Arabako Campusean tarte bakoitza zenbat eskatzailek lortu zuten.

TARTEAK	ESKATZAILE KOP.
A2	1
A1	2
B3	1
B2	0
B1 C1	0
B1 C1 C2	4
C2	3
C1	7
TARTERIK EZ	7



2.3. irudia. Arabako Campusean lortutako mailen banaketa.


## EMAITZAK EBALUAZIO-BATZORDEKA

### Ezagutza Teknikoen Batzordea

Ezagutza Teknikoen Batzordeak 49 eskaera ebaluatu zituen. Emaitzak 2.11. taulan jasotzen dira.

**2.11. taula.** Ezagutza Teknikoen Batzordeari atxikitako eskatzaile-kopurua, lortutako tartearen arabera.

TARTEAK	ESKATZAILE KOP.
A2	0
A1	1
B3	3
B2	0
B1 C2 C1	5
B1 C1	11
C2	6
C1	18
TARTERIK EZ	5




**2.4. irudia.** Ezagutza Teknikoen Batzordean lortutako mailen banaketa.

**Gizarte Zientziak (Lege- eta Ekonomia-zientziak)**

Gizarte Zientzien Batzordeak 33 eskaera ebaluatu zituen. Emaitzak 2.12. taulan jasotzen dira.

**2.12. taula.** Gizarte Zientzien (Lege- eta Ekonomia-zientziak) Batzordeari atxikitako eskatzaile-kopurua, lortutako tartearen arabera.

TARTEAK	ESKATZAILE KOP.
A2	0
A1	0
B3	1
B2	3
B1 C2 C1	4
B1 C1	0
C2	6
C1	15
TARTERIK EZ	4




**2.5. irudia.** Gizarte Zientzien (Lege- eta Ekonomia-zientziak) Batzordean lortutako mailen banaketa.

**Giza Zientziak**

Giza Zientzien Batzordeak 18 eskaera ebaluatu zituen. Emaitzak 2.13. taulan jasotzen dira.

**2.13. taula.** Giza Zientzien Batzordeari atxikitako eskatzaile-kopurua, lortutako tartearen arabera.

TARTEAK	ESKATZAILE KOP.
A2	1
A1	1
B3	0
B2	1
B1 C2 C1	3
B1 C1	2
C2	4
C1	5
TARTERIK EZ	1



2.6. irudia. Giza Zientzien Batzordean lortutako mailen banaketa.


### Zientzia Esperimentalak

Zientzia Esperimentalen Batzordeak 35 eskaera ebaluatu zituen. Emaitzak 2.14. taulan jasotzen dira.

2.14. taula. Zientzia Esperimentalen Batzordeari atxikitako eskatzaile-kopurua, lortutako tartearen arabera.

TARTEAK	ESKATZAILE KOP.
A2	0
A1	0
B3	2
B2	1
B1 C2 C1	5
B1 C1	5
C2	1
C1	16
TARTERIK EZ	5






**2.7. irudia.** Zientzia Esperimentalen Batzordean lortutako mailen banaketa.

**Medikuntza- eta Osasun-zientziak**

Medikuntza- eta Osasun-zientzien Batzordeak 42 eskaera ebaluatu zituen. Emaitzak 2.15. taulan jasotzen dira.

**2.15. taula.** Medikuntza- eta Osasun-zientzien Batzordeari atxikitako eskatzaile-kopurua, lortutako tartearen arabera.

TARTEAK	ESKATZAILE KOP.
A2	2
A1	2
B3	1
B2	2
B1 C2 C1	7
B1 C1	3
C2	10
C1	9
TARTERIK EZ	6



**2.8. irudia.** Medikuntza- eta Osasun-zientzien Batzordean lortutako mailen banaketa.


**2.16. taula.** Tarte bakoitza zenbat eskatzailek lortu duten, batzordeka banatuta.

Tartea	IRAKASK. TEKNIKOAK	GIZARTE-ZIENTZIAK	GIZA ZIENTZIAK	ZIENTZIA ESPERIMENTALAK	MEDIKUNT. ZIENTZIAK
A2	0	0	1	0	2
A1	1	0	1	0	2
B3	3	1	0	2	1
B2	0	3	1	1	2
B1 C2 C1	5	4	3	5	7
B1 C1	11	0	2	5	3
C2	6	6	4	1	10
C1	18	15	5	16	9
TARTERIK EZ	5	4	1	5	6

**EMAITZAK, GENEROAREN ARABERA**

**2.17. taula.** Tarte bakoitza zenbat eskatzailek lortu duten, generoaren arabera banatuta.

TARTEA	GIZON KOP.	(%)	EMAKUME KOP.	(%)
A2	3	3,00	0	0,00
A1	4	4,00	0	0,00
B3	4	4,00	3	3,90
B2	5	5,00	2	2,60
B1 C2 C1	14	14,00	10	12,99
B1 C1	12	12,00	9	11,69
C2	15	15,00	12	15,58
C1	31	31,00	32	41,56
TARTERIK EZ	12	12,00	9	11,69



**2.9. irudia.** Histograma: gizonak eta emakumeak guztira.

**2.5. EBAZPENEA**

Bidalitako ebazpenak banakakoak ziren, eskabide bakoitzerako eginak, eta aitortutako puntuazio eta tarteari buruzko informazioa ematen zen, tarte zein egunetan esleitu zen zehaztearekin batera. Halaber, tarte jakin batean ebaluazioa negatiboa izan zen kasuetan, arrazoi zehatzak azaldu ziren ebazpenetan.

Lehendabizi, 2009ko ekainaren 24an, C tarteko ebazpenak igorri ziren, eta, aurrerago, 2009ko uztailaren 28an, A eta B mailetakoak.

## 2.6. BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA

Berraztertzeako errekurtsuak aurkeztu ziren kasuetan, UNIQUALEko langileek eta Ebaluazio Batzordeak espediente osoa berrikusi zuten; eskatzailearen alegazioak aztertu, eta horren gaineko txosten berria egin zuten. Zuzendariak, Batzordearen txostena aztertuta, berraztertzeako errekurtsua ebatzi zuen, eta ebazpena interesdunari jakinarazi zitzaion, errekurtsua aurkeztu zuenetik ahalik eta eperik laburrenean; nolana ere, ebazteko epeak luzatu egin ziren ezinbestean, errekurtsu-egile bakoitzaren espedientea osorik eta zehatz-mehatz aztertu baitzen.

Osagarriak ebaluatzeko eta esleitzeko ebazpenen aurka, berraztertzeako 13 errekurtsu aurkeztu ziren; C tartekoak 3, eta A eta B mailetakoak 10. C tartean aurkeztutako errekurtsuetatik 2 onartu egin ziren, eskatzaileek egiaztagiria aurkeztu ondoren, eta 1 atzera bota zen. A eta B mailetan aurkeztutako berraztertzeako errekurtsuetatik 4 onartu ziren, 3 osorik eta 1 partez, eta 6 atzera bota ziren. Onartutako 4 errekurtsu horietatik 2k tarte aldaketa ekarri zuten.

**2.18. taula.** Berraztertzeako errekurtsuei emandako erantzuna, jakintza-arloka banatuta.

Jakintza-arloak	ERREKURTSO KOP.
Zientzia Esperimentalak	1
Medikuntza- eta Osasun-zientziak	1
Irakaskuntza Teknikoak	4
Giza Zientziak	2
Gizarte Zientziak	5

## I. ERANSKINA: ARAUTEGIA

- [3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoa.](#)
- [138/2006 DEKRETUA, ekainaren 27koa, Uniqua Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentziaren estatutuak onartzen dituena.](#)
- [209/2006 DEKRETUA, urriaren 17koa, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen ordainsari osagarriei buruzkoa.EHUren Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak 2008ko urriaren 22an hartutako ERABAKIA, Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle eta Ikertzaileen ordainsari osagarrien esleipena eta merituen ebaluazioa eskatzeko Deialdia onetsi eta argitaratzea erabakitzen duena.](#)
- [2008ko abenduaren 15eko EBAZPENA, Uniqua Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentziaren zuzendariarena, EHUko Irakasle eta Ikertzaileen Osagarriak ebaluatzeko eta esleitzeko Protokoloa -Uniqua Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentziak 2008ko abenduaren 10ean onartua-argitaratzen duena.](#)
- [2008ko abenduaren 15ean Uniqua Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentziaren zuzendariak emandako Ebazpenaren AKATSAK ZUZENTZEA. Horren bidez, EHUko Irakasle eta Ikertzaileen Osagarriak ebaluatzeko eta esleitzeko Protokoloa argitaratu zen, Uniqua Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentziak 2008ko abenduaren 10ean onartua.](#)
- [2007ko irailaren 24ko EBAZPENA, Uniqua Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentziaren zuzendariarena, Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle eta Ikertzaileen ordainsari osagarriak esleitzeko Ebaluazio Batzordeen osaera Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian eta Uniqualen web orrian argitaratzeko agintzen duena.](#)
- [30/92 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.](#)